

‘Irakurri’ kanpaina irakurleak areagotzeko

Hiritarren artean irakurketa areagotzeko, Euskal Jaurlaritzak ‘Irakurri’ kanpaina abian jarri du. Ekimen horrek arrakasta izan dezan, liburutegiek ere beraien proiektuak garatzen hasi dira jendearen artean irakurketa ohitura bihurtu dadin. Aste honetan bertan, Bizkaiko bi udalerrik beraien liburutegiak aste honetan kalera aterako dituzte. Horrela, Leioako Liburutegi Publikoaren kasuan, gaur hasi eta datorren ostirala arte, Ikea Barri Plazan izango dira kontsultagai, bai goizez zein arratsalde. Modu horretan, hiritarrek zelako liburuak kontsultatzeko aukera dagoen egongo da eskuragai eta, bestetik, zelako zerbitzuak dauzkaten Leioakoek ere ezagutzeko beta izango da: nagusi zein gaixoei etxera eramateko aukerarekin esaterako.

Gainera, bihar, Liburutegien Munduko Eguna ospatuko da eta liburutegiko bidea gezi eta seinaleekin ondo markatuta izango da. Etxebarriko San Antonioko Liburutegia ere Jaurlaritzaren kanpaina honetara atxikitu da eta bertako liburuak udalerriko denda eta lokaletan izango dira. Modu horretan, hiritarrak zenbait dendetara jotzen badute, bertan izango dituzte kontsultagai. Gainera, udalerriko liburutegien berri izateko, 3.000 liburuxka banatuko dituzte. Bestetik, azaroaren 20tik 24ra Ume eta Gazteen X. Literatur Astea antolatu dute. Ekimenak antzerkia eta adituek egindako gidaliburu bat eskainiko dute, txikiek jakin dezaten zein liburu interesgarri daukaten irakurtzeko.